

## Mondragon Unibertsitateko ikasturte hasiera ofiziala

2013/09/19

Mondragon Unibertsitateko Errektorearekin, Hezkuntza Sailburuarekin eta Mondragon Unibertsitateko Presidenteorde eta Idazkari Nagusiarekin batera, Lehendakariak, atzo, irailak 18, Mondragon Unibertsitateko ikasturteari hasiera ofiziala eman zion.

Ekitaldia, oraingoan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Eskoriatzan duen campusean izan zen eta bertan, autoritate politiko eta akademikoetaz gain, unibertsitateko langile eta kolaboratzaileak ere izan ziren.

Hainbat gairen artean aipatu ziren Mondragon Unibertsitateak ikasturte hontan eskaintzen dituen titulazio berriak, matrikuletan izan den gorakada eta baita ere kokapen berriak; Aretxabaleta, Donostialdea (Orona IDeO Innovation City) eta Bilbo (Bilbao Berrikuntza Faktoria)

